


H12-24 – La dislexia y las discapacidades sensoriales en el marco de las L2/LE: desde la identificación hacia la intervención educativa

Dislexia eta zentzumen-desgaitasunak AH/H2aren esparruan: identifikatu eta esku hartu

Informazio orokorra

Data	2024ko uztailaren 10, 11 eta 12
Orduetgia	09:00-13:30
Lekua	<u>Miramar jauregia (Donostia)</u>
Iraupena	13,5 ordu (balio akademikoa 30 ordu)
Ikastaro-mota	Aurrez aurrekoa
Hizkuntza	Gaztelania
Hartzaileak	Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak. Eta interesaturik dagoen oro, plaza-kopurua bete arte.
Matrikularen prezioa	Gazte-tarifa 25,00 € (2024-05-31 arte). 81,00 € (2023-07-10 arte) Orokorra 116,00 € Matrikula murriztu orokorra 98,00 € Matrikula-exentzioa 81,00 € Irakasteko ikasten 98,00 € Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide 98,00 € ELKAREko bazkide 98,00 €
Antolatzailea	EHU Uda Ikastaroak - HABE

Irakaslea



Hizkuntzalari kliniko, hizkuntza-gaitasunean eta desgaitasunean aditua, Komunitatean Integratzeko Unibertsitate Institutuko kidea (INICO) eta Salamancako Unibertsitateko COMPLYDIS (Hizkuntza-gaitasuna eta desgaitasuna) taldeko ikertzailea. Madrilgo Complutense Unibertsitateko *Revista de Investigación en Logopedia* aldizkariko adituen batzorde ikuskatzaileko kidea da, eta irakasle-ikertzaile gisa lan egiten du nazioartean eta nazio-mailan erreferente diren zenbait unibertsitatetan. Ikaskuntzaren nahasmenduen eta desgaitasunen arloan zenbait gradu eta graduondokotan irakaslea da.

Diego Paniagua Martín

Ikastaroaren deskribapena

Gauza jakina da azken hamarkadetan ikerketa gutxi egin direla AH/H2aren irakaskuntzaren esparruko ikaskuntzaren nahasmenduen eta Hezkuntza Premia Berezien arloan. Era berean, argi dago oso beharrezkoa dela ikastetxeetan eta erakundeetan gaiari buruzko prestakuntza espezializatua jasotzea.

Beraz, kontuan hartuta gaiari buruzko ikerketa urria, desgaitasun ugari daudela eta gai honetan sektoreak dituen beharrak, honako hauek dira prestakuntza honen helburuak: ekarpen teorikoetatik haratago, batetik, ikasle hauei AH/H2a irakastea zertan datzan argitzea eta, bestetik, ikuspegi inklusibo eta berritzaile batetik, irakasleei eskaintzea ezaugarri horiek dituzten ikasleekin erabili beharreko hezkuntza-joera berriak, tresnak eta estrategiak, betiere komunikazioan eta lankidetzan oinarrituta.

Helburu orokorra

Aztertzea nola eragiten duten dislexiak eta zentzumen-desgaitasunek hizkuntzaren pertzepzioan, ulermenean eta ekoizpenean. Era berean, ikasleen beharrei begirako esku-hartze estrategiak eta hezkuntza-joera berriak aztertzea eta dislexia eta zentzumen-desgaitasunak bereizteko gakoak identifikatzea ahalbidetuko duten ereduak eskaintzea.

Helburu zehatzak

- Aztertzea nola eragin diezaioketen dislexiak eta zentzumen-desgaitasunek, bai idatzizko eta ahozko hizkuntzari, bai trebetasunen integrazioari.
- Dislexia eta zentzumen-desgaitasuna duten ikasleen beharrak ulertzea eta haiekiko sentsibilitatea sustatzea, bai eta haien aukera-berdintasuna erraztuko duen hezkuntza-ingurune inklusibo sortzeko beharrekiko sustapen-lana egitea ere.
- Material didaktikoak eta irakasteko metodoak ebaluatu eta egokitzea, ezaugarri horiek dituzten ikasleen berariazko zailtasunei aurre egiteko.

Programa

Edukiak	Eskola-ordu kopurua
Uztailak 10: Dislexia	45 minutuko saioak
○ Dislexia duten ikasleen kasu berezia	
○ Irakasleak, ikasleak eta hezkuntza-inguruneak	
○ Ebaluazioa eta esku-hartze didaktikoa	
○ Materialak aztertu, egokitu eta sortzea	
○ Ikas-irakas prozesua optimizatzeari begirako ondorioak eta hausnarketak	

Uztailak 11: Ikusmen-desgaitasuna	45 minutuko saioak
○ Ikusmen-desgaitasunaren kasu berezia	
○ Irakasleak, ikasleak eta hezkuntza-testuingurua	
○ Ebaluazioa eta esku-hartze didaktikoa	
○ Curriculuma egokitzea: erreferentziako eredu bat	
○ Ikas-irakas prozesua optimizatzeari begirako ondorioak eta hausnarketak.	

Uztailak 12: Entzumen-desgaitasuna	45 minutuko saioak
○ Kontzeptuaren analisi zehatzari begira	
○ Entzumen-desgaitasunaren berezitasuna	
○ Ebaluazioa eta esku-hartze didaktikoa: hezkuntza-joera berriak	
○ Erreferentziako-ereduen azterketa, curriculuma egokitzeko oinarri gisa	
○ Ikas-irakas prozesua optimizatzeari begirako ondorioak eta hausnarketak	
GUZTIRA	13 ordu eta erdi

Metodologia

Saio teoriko-praktikoak izango dira.

Ebaluazioa

Ziurtagiri akademikoa lortzeko, nahitaezkoa da gutxienez jardueraren iraupenaren % 80ko bertaratzea.